



AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
31890 **BETELU**  
(Navarra)  
**BETELUKO UDALA**

### **93/2022 EBAZPENA**

Beteluko Udaleko alkateak, Miguel Javier Recalde Goldaraz jaunak, 2022ko abenduaren 20an, hurrengo ebazpena eman du:

### **EBAZPENA**

2022ko azaroaren 7ko 85/2022 ebazpen bidez onartu ziren plantilla organikoan 2 zenbakia duen administrari laguntzaile postu hutsa merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia eta haren oinarriak.

Ebazpen hau 2022ko azaroaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (231 zenbakiduna) argitaratu zen.

Oinarrien 5. Puntuan ezartzen denaren arabera, kalifikazio epaimahaia deialdia onetsi ondoren eta izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da.

Hori horrela hau

**EBATZI DUT:**

Lehenengoa: Ondoko kalifikazio epaimahaia izendatzea onartutako oinarrien irizpideak kontuan hartuta:

Lehendakaria: Miguel Javier Recalde Goldaraz, Beteluko Udaleko alkatea.

Lehendakariaren ordezkoa: Asier Elizalde Zubillaga, Beteluko Udaleko alkateordea.

1. Bokala: Ainhoa Beraza Elizondo, Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitateko teknikaria.

1. Bokal ordezkoa: Oihane Soroa Muguerza, Araizko Udaleko administrari-ofiziala.

Bokal-idazkaria: Joanes Aleman Ollo, Beteluko Udaleko idazkaria.

Bokal-idazkariaren ordezkoa: Ana Alduntzin Navarro, Larraungo Udaleko idazkaria

Bigarrena: Oinarrien 5. puntuan zehazten den moduan epaimahaiaren izendapen hau toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan argitaratzea.



AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
31890 **BETELU**  
(Navarra)  
**BETELUKO UDALA**

Betelun, 2022ko abenduaren 20an.  
Alkatea,

Miguel Javier Recalde Goldaraz.

